



# ***kirolklub***

**ERABILERA ARAUAK ETA ARAUTEGIA**



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala



## ATARIKOA

Kirolklub zerbitzua Urbaser SA enpresak kudeatzen du emakida bidez, Vitoria-Gasteizko Udalak deitutako lehiaketaren arabera. Kontratazioa arautzen duen pleguak berak ezartzen ditu Kirolklub Zerbitzuaren honako alderdi hauek:

Kirolklub zerbitzuan, eskubidea ematen den jarduera multzoaren arabera, hainbat erabilera-tipologiaren eta/edo erabiltzaileren araberako paketeak eskaini daitezke.

Kirolklub Zerbitzuan ematen diren zerbitzuak instalazioen eta guneen arabera antolatzen dira, eta horiek Urbaser enpresak kudeatutako ustiapen-unitateetan egituratzen dira. Argi izan behar da zerbitzuak Gamarra Parkean eta Mendizorrotza Kirol Esparruan kokatutako instalazio eta guneetan duela bere oinarria, eta instalazio horiek udalak kudeatzen ditu.

Gamarra Parkean eta Mendizorrotza Kirol Esparruan kokatutako unitate horiek zerbitzu integral bat osatzen dute. Mendizorrotza Kirol Esparruko unitateak Gamarra Parkean bildutako unitate batzuen antzekoak dira, eta, beraz, partaide kopuru handiagoa ahalbidetzeko zerbitzua eman nahi dute.

Horrela, eta zerbitzu nagusiak bi instalazioetan eskaini daitezkeela kontuan hartuta, arau gisa ezarri da Udaleko Kirol Instalazioetara (aurrerantzean UKI) harpidetutako biztanleek bakarrik erabili ahal izango dituztela Mendizorrotza Kirol Esparruan eskainitako zerbitzuak, eta Gamarra Parkean, aldiz, UKIetara harpidetuak daudenek nahi ez daudenek erabili ahal izango dituzte. Horretaz gain, Gamarra Parkean beste instalazio batzuk jarriko dira, eskainitako paketeen barruan bildu ahal izango direnak.



## ATARIKO TITULUA **ARAUDIAREN XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA**

### **1. artikulua - Araudiaren xedea**

Araudi honen helburua da erabiltzaileek Kirolklub Zerbitzuaren kirol-zerbitzuak erabiltzean izango dituzten eskubideak, betebeharrak eta baldintzak arautzea.

### **2. artikulua - Aplikazio-eremua**

Araudi hau Kirolklub Zerbitzuaren kirol-zerbitzuei aplikatuko zaie, Mendizorrotza Kirol Esparruan eta Gamarra Parkean garatzen direnak.

Administrazio-emakida bat denez gero, Vitoria-Gasteizko Udalaren Gizarte Etxeen eta Kirol Instalazioen Araudia aplikatuko zaie. Zalantzarik edo kontraesanik baldin badago, azken araudi hori nagusituko da.

## LEHEN TITULUA **KIROL ZERBITZUAREN ERABILTZAILEAK**

### **3. artikulua- Kirolklub Zerbitzuaren erabiltzaileen definizioa**

Instalazioak hiritar guztientzako sarrera librea izango du, muga bakarra izanik orri hauen aplikaziotik ondorioztatutako baldintzak eta betekizunak betetzea, zerbitzuen tarifak ordaintzea, ekipamenduaren ahalmen, segurtasun eta ezaugarriak, eta barne-araudiko arauetikiko errespetua.

Hala ere, honako hauen artean bereizi behar da:

- » Kirolklub Zerbitzuko bazkidea. Aurkeztutako eskaintzan ezarritako paketeen araberako erabilera-eskubideak baliatzen dituzten pertsonak dira.
- » Kirolklub Zerbitzuko bazkidea, oinarrizko paketean biltzen ez diren eskaintzen erabiltzailea.

- » Kirolklub zerbitzuen erabiltzaileak. Kirolklub Zerbitzuko bazkideak ez diren eta jarduera jakin batzuetan izena ematen duten pertsonak dira.
- » Jarduera espezifikoaren erabiltzaileak. Kasu horretan, emakidaren berezko ustiapen-unitateetako jarduera-programetan biltzen ez diren jarduera-eskaintzetan parte hartzen duen edozein erabiltzaile izango da.
- » Jarduera espezifikoaren erabiltzaile kolektiboak. Kasu horretan, jarduera-eskaintza espezifikoetan parte hartzen duen edozein erabiltzaile multzo izango da (enpresak, klubak, hezkuntza-zentroak, eta abar).

#### **4. artikulua - Kirolklub Zerbitzuaren bazkideen definizioa**

Kirolklub Zerbitzuko bazkideak izango dira Kirolklub Zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzuak erabili eta baliatzeko asmoarekin proposatzen diren modalitateetako batean izena ematen dutenak, horretarako ezarritako baldintzekin eta betekizunekin, eta zerbitzuan altan emanda daudenak.

Kirolklub Zerbitzuko bazkide gisa alta formalizatzeko, honako izapide hauek egin beharko dira:

- » Bazkide gisa alta emateko fitxa sinatzea.
- » Matrikula ordaintzea, sarrera-kuota gisa, baita izena ematen duen bazkide-modalitateari dagozkion kuotak ere, ezinbestekoa izanik ordaintetarik egunean izatea beti.
- » Araudi hau ezagutzea eta horren betearazpena onartzea.

#### **5. artikulua - Kirolklub Zerbitzuko bazkideen kategoriak**

Bazkideen kategoria motak honako hauek izan daitezke:

- » A. Kirolklub Banakakoa: 18tik 64 urtera bitarte.
- » B. Kirolklub Master Banakakoa: 64 urtetik gorakoak.
- » C. Kirolklub Gazte Banakakoa: 12tik 17 urtera bitarte.

- » D. Kirolklub Bikotea: Ezkontideak edo izatezko bikoteak egiaztagiri ofizialarekin, 18 urtetik gorakoak.
- » E. Kirolklub Familia: 1. mailako familia-unitateak egiaztagiri ofizialarekin, 18 urtetik gorakoak. Modalitate horrek barnean hartzen ditu Haurren Familiarra, 5etik 11 urtera bitartekoa, eta Gazteen Familiarra, 12tik 17 urtera bitarte.
- » F. Ezinduak: % 65eko ezintasuna edo hortik gorakoa.

Tipologia horien arabera, bazkide izateko kuota bat izango da. Kuota hori Vitoria-Gasteizko Udaleko organo eskudunak onartuko du. Informazio hori erabiltzaileen esku egongo da instalazio bakoitzaren informazio-bulegoetan.

## **6. artikulua - Matrikula**

Ezinbesteko baldintza da matrikula ordaintzea Kirolklub Zerbitzuko bazkide izateko, baita ordainketa guztiak egunean izatea ere. Matrikularen zenbatekoa bazkidearen kategoriaren arabera ezarriko da, eta Vitoria-Gasteizko Udaleko organo eskudunak onartutako tarifa ofizial bat izango da beti.

Kontzeptu horren ordainketa behin bakarrik egingo da, betiere bazkideak baja eragiten ez badu.

Matrikularen zenbatekoa ez da inolaz ere itzuliko.

## **7. artikulua - Kirolklub Zerbitzuko bazkidearen alta emateko prozeduraren hasierako fasean ordaintzeko moduak**

Lehen kuota eta matrikula une berean ordainduko dira, alta emateko fitxa sinatzerakoan. Ordainketa dirutan edo banku-txartelaren bidez egin ahal izango da. Aurretiaz ordaintzeko moduren bat hautatzen bada (hiruhilean, seiuhilean edo urtean), ordainketa hori modu berean egingo da.

## **8. artikulua - Kirolklub Zerbitzuko bazkideen ondoz ondoko kuotak ordaintzeko moduak**

Ezarritako ordainketa-kuotak bazkideak adierazitako kontu-zenbakirako banku-igorpen baten bidez egingo dira.

Ez da onartuko beste modurik ondoz ondoko kuotak ordaintzeko (aurreko artikuluan adierazitako hasierako kuotaz bestelakoak), eta, beraz, ezinbestekoa da kontu-zenbaki bat ematea, banku-igorpenak egiteko.

Kuotak ordaintzen ez badira, horren berri emango zaio bazkideari gutun ziurtatu baten bidez edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein bitartekoren bidez. Gehieneko epe bat ezarriko da, 30 lanegunekoa, ordaindu gabeko kuota ordaintzeko, eta dagokion zentroan ordaindu beharko da dirutan edo banku-txartelarekin. Ordainagiri bat itzultzen bada, enpresa kudeatzaileak banku-gastuen kontzeptupean zehazten duen diru-kopuru jakin bat ordaindu beharko da.

Ordainketa adierazitako epean egiten ez bada, Kirolklub Zerbitzuko bazkide gisa baja eragingo zaio, eta bazkide gisa dituen eskubide guztiak galduko ditu.

Baja gutun ziurtatu bidez jakinaraziko zaio, edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein bitartekoren bidez.

Baja egin ondoren, eta aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatuz, interesdunak ordaintzeke dituen kuotak ordaindu ondoren bakarrik eman ahal izango du alta berriro. Kasu horretan, berriz ere hasierako matrikula eta eragindako banku-gastuak ordaindu beharko ditu.

## **9. artikulua - Aldi baterako baja eta mantentze-kuota**

### **Aldi-baterako baja**

Lanagatik edo ikasketengatik, urtean 6 hilabete edo gehiago kanpora joaten bada, bizileku berria Vitoria-Gasteiztik 100 kilometrotik gora izanik, Kirolklub Zerbitzuan aldi baterako baja eskatu ahal izango du.

Aldi baterako baja hori idazki bidez eskatuko da Kirolklub Zerbitzuaren Zuzendaritzan, bizileku-aldaketa agiri bidez egiaztatuta. Kirolklub Zerbitzuaren Zuzendaritzak modu espezifikoa aztertuko ditu idatz-zati honetan aurreikusten ez diren gainerako kasuak.

### **Mantentze-kuota**

Denboraldi horretan bazkideak hileko kuotaren zenbatekoa baino zenbateko txikiago bat ordaintzen du, bazkide-izaera ez galtzearen.



Denboraldi horretan, bazkideak ezin ditu erabili Kirolklub Zerbitzuak kudeatzen dituen guneak. Kuota hori aplikatu nahi den hilabetearen aurreko hilabetearen 15a baino lehen eskatu behar da idazki bidez. Ikusi informazio-puntuetan mantentze-kuota eskatu eta formalizatzeko baldintzak.

## **10. artikulua - Bazkide-izaera galtzea**

Bazkide-izaera honako arrazoi hauengatik galdu ahal izango da:

- » Norberak erabakita. Kirolklub Zerbitzuan borondatezko baja eragiteko, interesdunak eskaera-orri sinatua aurkeztuko du Kirolklub Zerbitzuaren Zuzendaritzan, izaera horretatik ondorioztatutako ohiko prozedura guztiak bertan behera uzteko. Idazki hori baja eragin nahi den hilabetearen hasieratik egutegiko 7 eguneko aurrerapenarekin aurkeztuko beharko da gutxienez.
- » Ordainketak ez egiteagatik, eta dagokion ordainketa adierazitako epean ez egiteagatik.
- » Zuzendaritzak erabakitzen badu, erabakia hutsegite oso larri batetan oinarrituta eta interesdunari entzun ondoren.

Hilabete bakoitzeko unitateentzat finkatutako prezioak deskontuekin hobetu ahal izango dira, denbora gehiagoko izen-emateengatik (iraunkortasuna). Kasu horretan, Kirolklub Zerbitzuko emakidadunak eskubidea izango du kuota murriztua atxikitzeko, itundutako iraunkortasuna betetzen ez bada.

Nolanahi ere, erabiltzaileak eskubidea du baja iragarri ondoko hilabete osoen zenbatekoa itzultzeko, agortu gabeko iraunkortasunagatik deskontuak kenduz.

## **11. artikulua - Kirolklub Zerbitzuko erabiltzaileen eskubideen bermea**

Kirolklub Zerbitzuko erabiltzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

- » Ezarrita ordaindu duten tarifari dagokion zerbitzua jasotzea, jardueren programan finkatutako baldintzetan edo Kirolklub Zerbitzuko

instalazioen erabilera-baldintza partikularretan. Justifikatutako arrazoiengatik, kontratatutako jarduera edo zerbitzua bertan behera utzi behar bada, horretara ordaindu duten zenbatekoa itzuliko zaie, nahitaezko kasuetan izan ezik, eta zerbitzuak erabiltzeko ezgaituak daudenean izan ezik.

- » Edozein hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea, Vitoria-Gasteizko Udalaren Euskararen Erabilerari buruzko Udal Ordenantzaren arabera.
- » Erailera komun orokorreko zonak ezarritako ordutegietan erabiltzea, nahitaezko arrazoiengatik edo justifikatutako arrazoiengatik erabiltzeko ezgaituak daudenean izan ezik.
- » Zentroan dituzten datu pertsonalak ikusi, aldatu eta ezabatzea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoan xedaturikoari jarraiki.

## **12. artikulua - Erabiltzaileen eskubideen bermea**

Kirolklub Zerbitzuko erabiltzaileen eskubideak bermatze aldera, erreklamazio-orriak izango dituzu eskuragarri instalazio bakoitzeko Informazio eta Kontrol Zerbitzuetan.

## **13. artikulua - Erantzukizun zibileko aseguru**

Kirolklub Zerbitzuko emakidadunak Erantzukizun Zibileko Aseguru bat izango du, kirol-instalazioen ustiapen-kontratua egikaritzearen ondorioz egotz dakizkiokeen erabiltzaileei edo horien ondasunei eragindako kalteengatiko erreklamazioak estaltzeko.

Kirolklub Zerbitzuaren enpresa emakidaduna ez da izango arauak ez betetzeagatik edo Kirolklub Zerbitzuaren kirol-instalazioak baimenik gabe erabiltzeagatik erabiltzaileei eragindako lesioen arduraduna.

Kirolklub Zerbitzuaren enpresa emakidaduna ez da izango jardueraren berezko arriskuengatik erabiltzaileei eragindako lesioen arduraduna.

## **14. artikulua - Erabiltzaileen betebeharrak**

- » Kudeaketa-eremuak, zerbitzuak eta ekipamenduak tratatu onarekin eta arreta egokiarekin erabiltzea.

- » Gainerako erabiltzaileei instalazioen bidezko erabilera ez eragozte eta ez oztopatzea.
- » Gainerako erabiltzaileekiko behar bezalako errespetua zaintzea, bizikidetzan on baterako portaera egokia izanik.
- » Instalazioak, materiala eta altzariak behar bezala erabiltzea, horiengan edo beste erabiltzaileen osasun eta eskubideengan kalteak eta akatsak saihestuz.
- » Zentroko langileei jakinaraztea atzematen dituzten funtzionamendu-anomaliak, urratzeak, hutsuneak, edo Araudi honetan xedaturikoa betetzen ez bada.
- » Ezarritako tarifak edo kuotak garaiz eta zerbitzu bakoitzerako modu espezifikoan ordaintzea.
- » Kirolklub Zerbitzuaren Zuzendaritzak ematen dituen arauak eta jarraibideak betetzea, baita jarduneko Udako Sailek ematen dituztenak ere, Vitoria-Gasteizko Udako organo eskudunen bitartez edo zentroetako langileen bitartez, nolahi ere aurrekoaren lana erraztuz eta horren jarraibideak kontuan hartuz.
- » Instalazio, zerbitzu edo jardueraren txartel espezifikoaren bitartez identifikatzea, instalazioen zaintzaz arduratzen den edozein langile eskatzen duenean.
- » Araudi honetan biltzen diren gainerako arauak betetzea, baita erabiliko den zerbitzuarenak ere.
- » Vitoria-Gasteizko Gizarte Etxeen eta Kirol Instalazioen Araudian eta Kirolklub Zerbitzuaren instalazioak eraginpean dituzten gainerako udal-araudietan ezarritakoa betetzea.

## **BIGARREN TITULUA** **INSTALAZIOETARA SARTZEKO ARAUDIA**

### **15. artikulua - Sarbide publikoa**

Kirolklub Zerbitzuaren kudeaketa-eremuetara sartzeko, ezinbestekoa da txartela edo Kirolklub erakundeak erabiltzaileei emandako beste edozein egiaztapen-elementu erabiltzea.

Bazkidearen txartela edo Kirolklub Zerbitzuarekiko lotura egiaztatzen duten gainerako elementuak pertsonala eta besterenezinak dira.

Era berean, Mendizorrotza Kirol Esparruan Kirolklub Zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzu guztietara sartzeko nahitaezkoa izango da UKletara harpidetuta egotea.

Bestalde, UKletara harpidetuak ez dauden Kirolklub Zerbitzuen erabiltzaileei Gamarra Parkera sartzeko aukera bermatuko zaie udan. Hala ere, udaleko kirol-instalazioetarako sarrera, instalazio horietako kontrol-sistema mekanizatuen bidezko sarrerak bermatzen dituen txartelarekin edo indarreko euskarriarekin egingo da.

## **16. artikulua - Zentroak irekiak dauden egunak eta ordutegia**

Kirolklub Zerbitzuaren egunak eta ordutegia zerbitzuak biltzen dituzten UKlentzat ezartzen diren berberak izango dira.

## **17. artikulua - Zerbitzuei eta jardueri buruzko informazioa**

Erabiltzaileek informazio- eta kontrol-zerbitzu espezifikoko bat izango dute Kirolklub Zerbitzuko zentro bakoitzean, eta bertan zerbitzuarekin lotutako informazio, erreserba eta izen-emate guztiak zentralizatuko dira. Zerbitzu horiek beste bitarteko batzuekin osatu ahal izango dira.

## **18. artikulua - Adingabeen sarrera**

- » 16 urtetik beherako gazteak beren ardura duen pertsona heldu batekin bakarrik sartu ahal izango dira Kirolklub Zerbitzuak kudeatzen dituen eremuetan.
- » Sauna eta lurrun-bainua erabiltzea ez dago baimenduta 16 urtetik beherakoentzat, ezta 18 urtetik beherakoentzat ere.
- » Muskulazio-aretoa sartzeko gutxieneko adina 16 urte dira. Teknikari batek gainbegiratuta
- » Ziklo-aretoa sartzeko gutxieneko adina 14 urte dira, 1,50 cm-ko gutxieneko altuera gaindituta.

## **HIRUGARREN TITULUA**

### **INSTALAZIOEN ERABILERA ARAUDIA**

#### **19. artikulua - Arau orokorrak**

- » Erabiltzaile guztien betebeharra da instalazio eta zerbitzuen kontserbazio-egoera ona zaintzea, horiek kaltetzen dituzten ekintza guztiak saihestuta edo horien berri emanez langileei, instalazioetan eta horien materialean ikusten dituzten anomalia guztien berri emanez enplegatuei.
- » Nahitaezkoa da une oro monitoreen jarraibideei jarraitzea.
- » Higienea eta gainerako erabiltzaileekiko errespetua dela eta, nahitaezkoa da eskuoihal pertsonal bat erabiltzea ariketak egiterakoan.
- » Nahitaezkoa da 60 urtetik gorako pertsona guztientzat medikuaren ziurtagiri bat aurkeztea, "ariketa fisikoa egiteko gai" dela zehaztuz. Horretaz gain, pertsona horiek ordutegiaren barruan eta aretoko teknikarien presentzian egin beharko dute beren jarduera.
- » Jardueretara sartzeko itxaron behar den uneetan, nahitaezkoa da isiltasun egoki bat mantentzea, instalazioaren funtzionamendu on eta normala ez hondatzearren.
- » Ez dago baimenduta kirol-instalazioen barruan jatea.
- » Ez dago baimenduta poltsekin, motxilekin, eta abarrekin sartzea kirol-guneen barruan. Instalazioetan jarritako armairuetan gorde beharko dira.
- » Ez dago baimenduta materiala horretarako jarritako gune espezfikoetatik eta aretoetatik kanpo ateratzea.
- » Kirol-instalazioetan erabilera bakoitzerako jarritako guneak errespetatu beharko dira.
- » Kirolklub Zerbitzuak erabiltzeko ezarritako ordutegiak errespetatu beharko dira.
- » Erabiltzaile guztiei gomendatzen zaie kirol-jarduera egin aurretik mediku-azterketa bat egitea, bereziki denbora luzez jarduerarik egin ez dutenek edo gaixotasun kronikoren bat dutenek.

- » Jarduera fisikoa eta spa zirkuitua egitean hidratatuta mantentzea gomendatzen da, ur-botila txikiak edo edari isotonikoak erabiliz.
- » Zerbitzuaren enpresa emakidaduna ez da arduraduna instalazioetan sartzen den edozein material galtzen bada edo lapurtzen badute.
- » Zerbitzuaren enpresa emakidadunak aretoen erabilera libretik ondorioztatutako erantzukizuna baztertzen du, baita erabiltzaileek modu librean jarduera egitean izan ditzaketen istripuak ere.

## **20. artikulua - Muskulazio aretoaren erabilera-arauak**

- » Sarrera librea da Kiroklub Zerbitzuko bazkideentzat.
- » Nahitaezkoa da 60 urtetik gorako pertsona guztientzat medikuaren ziurtagiri bat aurkeztea, "muskulazio-aparatuekin ariketak egiteko gai" dela zehaztuz. Horretaz gain, pertsona horiek ordutegiaren barruan eta aretoko teknikarien presentzian egin beharko dute beren jarduera.
- » Zerbitzuaren eta erabiltzaile guztien onurarako, nahitaezkoa da erabilitako materiala gordetzea erabiltzen amaitu ondoren.
- » Nahitaezkoa da aretoko teknikariek gainbegiratzea plataforma bibrakorrak erabiltzeko.
- » Makina bakoitza 30 minutuz erabili daiteke gehienez ere.
- » Zerbitzuaren onurarako, eta erabiltzaile guztiek aretoa erabiltzeko aukera izan dezaten, erabiltzaileen kopurua ezarritako gehieneko kopurura hurbiltzen denean, aretoa erabiltzeko gehieneko denbora bat ezarriko da, ordubetekoa.
- » Circuit Series makinariaren zuzendutako jarduerak lehentasuna du erabilera librearen gainean. Hala ere, zuzendutako jarduerarik ez dagoenean, makinaria hori modu librean erabili daiteke.
- » Lehen egunean gomendagarria da gimnasioko monitoreengana jotzea ariketa-programei buruz aholkua eskatzeko, eta makinaren funtzionamendua ezagutzeko.

## 21. artikulua - Ziklo aretoaren erabilera-arauak

- » Sarrera librea da Kirolklub Zerbitzuko bazkideentzat fitness jardueretan, baita jarduera horretan izena eman dutenentzat ere.
- » Ziklo Aretoaren sarrera eta erabilera baimenduta dago soilik zuzendutako jardueretarako eta/edo monitoreen laguntzarekin.
- » Nahitaezkoa da 60 urtetik gorako pertsona guztientzat medikuaren ziurtagiri bat aurkeztea, "indoor zikloko aparatuekin ariketak egiteko gai" dela zehaztuz.
- » Bizikletak ezingo dira erreserbatu eskola bakoitza hasi baino lehen, aurretiko izen-emateen kasuan izan ezik.
- » Pultsometroa erabiltzea gomendatzen da.

## 22. artikulua - Jarduera Aretoen erabilera-arauak

- » Fitness jardueretarako sarrera librea da Kirolklub Zerbitzuko bazkideentzat, baita jarduera horietan izena eman dutenentzat ere.
- » Jarduera espezializatueta, gun e horietarako sarrera baimenduta dago jarduera horietan izena eman duten eta dagokion plusa ordaindu duten Kirolklub Zerbitzuko bazkideentzat, baita jarduera horietan izena eman duten erabiltzaileentzat ere.
- » Areto horien sarrera eta erabilera baimenduta dago soilik zuzendutako jardueretarako eta/edo monitoreen laguntzarekin.
- » Jarduera-aretoetan sartzeko nahitaezkoa da Kirolklub guneeetan instalazio horietan kontrol-sistema mekanizatuaren bitartez sarrera bermatzen duen eskumuturrekoa edo indarreko euskarria eramatea.

## 23. artikulua - Entretenimendu pertsonalen eremua

- » Entretenimendu pertsonalerako erabiltzen den materiala ez dago erabiltzaileen eskura, entrenatzaile pertsonalek bakarrik erabili baititzakete.
- » Zona horretako ekipamenduaren erabilera Fitness Aretoko teknikariek baimenduta eta gainbegiratuta izango da beti.

- » Gune horien erabilerari dagokionez, entrenamendu pertsonaletarako erabilerak lehentasuna izango du.
- » Ezinduentzat egokitutako ekipamenduen erabilera teknikariak gainbegiratuta izango da beti.
- » Ezinduentzako aukietara egokitutako ekipamenduak erabilera-lehentasuna izango du.

## **24. artikulua - Wellness eremuaren erabilera-arauak**

- » Wellness eremuan sarrera librea da Kirolklub Zerbitzuko bazkideentzat. Mendizorrotzako instalazioan izan ezik, Vitoria-Gasteizko Udaleko Kirol Instalazioetara abonatuak izan beharko baitira sartu ahal izateko.
- » Derrigorrezkoa da bainujantzia, txankletak eta eskuoihala erabiltzea, Kirolklub Zerbitzuko zuzendaritzaren baimena dutenen kasuan izan ezik.
- » Debehatuta dago kaleko arroparen eta oinetakoekin sartzea, Kirolklub Zerbitzuko Zuzendaritzaren baimena dutenen kasuan izan ezik.
- » Zerbitzuaren eta gainerako erabiltzaileen onurarako, eta Wellness Zonan giro egoki bat sortzearen, debehatuta dago ahotsa goratzea edo zaratak egitea gune horien barruan.
- » Dutxen erabilera banaka egingo da.
- » Sauna eta lurrun-bainua desegokiak dira arteria-hipotentsiorakoa, gaixotasun kardiobaskularretan, barizeentzat, haurdunaldietan, eta edari alkoholdunak edan ondoren.
- » Wellness eremuaren erabilerari buruz zalantzaren bat izanez gero, medikuari kontsultatzea gomendatzen da.
- » Zerbitzuaren onurarako, eta erabiltzaile guztiak Wellness eremua erabiltzeko aukera izan dezaten, erabiltzaileen kopurua ezarritako gehieneko kopurura hurbiltzen denean, gune horiek erabiltzeko gehieneko denbora bat ezarriko da, 5 minutukoa.



## **25. artikulua - Haurrentzako Fitness Zonaren erabilera-arauak**

- » Haurrentzako Fitness Zonarako sarrera bazkideentzat dago erreserbatuta, baita zona horretarako sarrera-txartel bat edo sarrera-bono bat erosi dutenentzat ere.
- » Areto horien erabilera baimenduta dago soilik zuzendutako jardueretarako eta monitoreen laguntzarekin. Era berean, derrigorrezkoa da zerbitzu hori erabiltzen duten haurrak sartu eta jasotzeko ezarritako ordutegia betetzea.
- » Adingabeen ardura duten pertsona helduek nahitaez instalazioan egon behar dute une oro, aurkitzeko moduan, adingabeak zona horretan dauden denboran.
- » Nahitaezkoa da monitoreek jarduera egitean kontuan har dezaketen edozein gaixotasuna, ezintasun edo eragozpen jakinaraztea.
- » Zerbitzuaren eta gainerako erabiltzaileen onurarako, eta Haurrentzako Fitness Zonan giro egoki bat sortzearen, debekatuta dago ahotsa goratzea edo zaratak egitea.

## **26. artikulua - Arropa egokia erabiltzea**

Derrigorrezkoa da kirolerako arropa eta oinetako egokiak erabiltzea Kirolklub Zerbitzuak kudeatzen dituen eremuetan. Debekatuta dago gorputz-enborra biluzik eramatea instalazioen barruan nahiz makinaria erabiltzean.

Era berean, debekatuta dago oinutsik ibiltzea zona horien barruan.

## **27. artikulua - Produktuen salmenta**

Edozein produktu saltzea zuzeneko edo zeharkako helburu gisa duten jarduera guztiek Vitoria-Gasteizko Udalaren organo eskudunaren esanbidezko baimena izan beharko dute.

## **28. artikulua - Eragindako kalteak**

Kirolklub Zerbitzuak kudeatzen dituen eremuen erabiltzaileak izango dira instalazioen erabilera txarrak eragin ditzakeen kalteen arduradunak.

## **LAUGARREN TITULUA** **IKASTAROAK ETA JARDUERAK**

### **29. artikulua - Jardueren ezaugarriak**

Idatz-zati honen barruan Fitness jarduerak eta Jarduera espezializatuak bereizi behar dira. Fitness jarduerak doakoak dira Kirolklub Zerbitzuaren bazkide guztientzat. Beren aldetik, jarduera espezializatuak hileko, hiruhileko edo sei hileko hazkunde ekonomiko bat dute.

Jarduera bakoitzarentzat, jardueraren eta/edo egiten den lekua ezaugarri berezien eta tarifen arabera ezarriko dira kuota, pertsona eta/edo kolektibo hartzaileak, saioak emango diren denboraldiak, egunak, ordutegiak, sartzeko baldintzak, lekua, izena emateko epeak, eta egiteko modua.

Informazio hori eskuragarri egongo da behar den aurrerapenarekin Kirolklub zerbitzuak kokatzen diren kirol-instalazioetan. Era berean, informazio hori beste bide batzuen bitartez argitaratuko da, hala nola: Kirolklub Zerbitzuaren Webgunean, edo ahal den hedapen handiena lortzeko bidezko hartzen diren bestelako bideak.

Bi jarduerak publiko orokorarentzat daude irekiak, betiere Mendizorrotzako instalazioan eskaintzen diren jarduerak egiteko UKletara abonatuak egon behar izatearen muga aski ezagunarekin.

### **30. artikulua - Izen-emateak formalizatzea**

Jardueretan izena ematezat hartzen da monitoreek zuzendutako jarduera batean plaza bat erreserbatzea Kirolklub Zerbitzuak ezarritako zerbitzua jasotzeko, horren plazak mugatuak izanik.

Jarduerak libreak, irekiak edo itxiak izen-ematearekin izan daitezke:

Izena emateko epea egunekoa, hilekoa, hiruhilekoa edo aldi baterakoa izan daiteke

Ikastaroetan izena emateko epea jarduera hasi aurreko hilabetearen lehen egunean eskainiko da.

Aurretiko izen-ematearekin jardueretara joaten diren pertsona guztiek aldeztu aurretik izena emanda egon beharko dute..

## **BOSGARREN TITULUA**

### **GUNEEN ERRESERBA ETA ALOKAIRUA**

#### **31. artikulua - Erreserba daitezkeen guneak**

Kirolklub Zerbitzuak kudeatutako eremuetako gune bat erreserbatu eta alokatzeak esan nahi du erabiltzaile batek eta/edo kolektibo batek aurrerapen jakin batekin eta helburu jakin baterako Kirolklub Zerbitzuaren instalazioetako leku jakin bat erabiltzeko eskaera egiten duela.

#### **32. artikulua - Guneen erreserba eta alokairua eskatzeko baldintzak**

PGuneen erreserba eta alokairua eskatu ahal izango du instalazio horietan jarduera bat garatu nahi duen edozein pertsonak edo kolektibok.

Gune baten erreserba guztietan eta erreserbak irauten duen denboran, talde, elkarte, klub edo erakunde eskatzailearen arduradun bat egon beharko da bertan.

Tasen ordainketak ez ditu barnean hartzen muntatze-lanak edo prestakuntza-lan gehigarriak. Gune baten erreserbaren onuradunek, jarduerak garatzeko, eta alde zuzenetik besterik adostu ez bada, beren baliabide tekniko propioak izan beharko dituzte (langileak eta materiala). Elementu jakin batzuk erabili, maneiatu edo muntatzeko, Kirolklub Zerbitzuko Zuzendaritzak lan hori egin beharko duten enpresak edo pertsonak zehaztu ahal izango ditu, betiere kontuan hartuta lan horien kostuak eta erabiliko diren materialen garraioa une oro erakunde eskatzaileari dagokiola.

#### **33. artikulua - Eska daitezkeen egunak**

Erabilera-aukera hori eskaintzen duten guneen erreserbak eta alokairuak Kirolklub Zerbitzuaren Zuzendaritzara zuzendutako eskaera idatzi bidez egingo dira [repcion-gam@urbaser.com](mailto:repcion-gam@urbaser.com) helbidean, edo [repcion-mend@urbaser.com](mailto:repcion-mend@urbaser.com) helbidean, gero berretsiak izateko.

### **34. artikulua - Instalazio-erreserba bat etetea**

Kirolklub Zerbitzuaren Zuzendaritzak, beharrezkoa izanez gero, erreserba bat bertan behera utzi ahal izango du, instalazioaren erabilera txarragatik, edo baita egindako jarduerak erreserbarako erabilitako kausen kalterako baldin badira ere.

Era berean, Kirolklub Zerbitzuaren Zuzendaritzak eskubide osoa izango du erabiltzaileei eta publiko orokorrari instalazioak osorik edo partzialki ixteko, istripuengatik instalazioen erabileran edozein motatako arrisku dagoela adierazten bada.

## **SEIGARREN TITULUA** **ZIGOR ARAUBIDEA**

### **35. artikulua - Ezaugarri orokorrak**

Idatz-zati hau Vitoria-Gasteizko Gizarte Etxeen eta Kirol Instalazioen Araubide Orokorrean ezarritakoaren arabera arautuko da, hurrengo artikuluetan adierazten diren zehaztapenekin.

Titulu honetatik guztiz kanpo geratzen dira alderdiek itundutako betebeharrak ekonomikoak, izaera zibilekoak izanik.

### **36. artikulua - Zigor-prozedura hastea**

Araudi honetan ezarritako arauak ez betetzea zigorra jaso ahal izango duen arau-haustetzat hartuko da. Kirolklub Zerbitzuaren Zuzendaritzak gertakarien berri emango dio Udal Zerbitzu arduradunari, zigortzeko eskumena duen organoari jakinarazi diezaion.

### **Artículo 37.- Polizia boterea**

Vitoria-Gasteizko Udalak zerbitzuen garapen egokia bermatzeko beharrezko polizia-botereak mantenduko ditu, honako betekizun honi dagokionez enpresa emakidadunak dituen betebeharrak betetzen direla zainduz: Zerbitzuaren ordena egokia zaintzea, dagokion aginduak emateko aukerarekin, araudi honetan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

Sentsu honetan, Erabilera araudi honetan zehazten da zein hutsegite edo portaerak zigor daitezke.

### **38. artikulua - Hutsegite oso larriak**

Honako hauek hartuko dira hutsegite oso larritzat:

- » Indarkeriazko jarrerak.
- » Kirolklub Zerbitzuaren Zuzendaritzak emandako txartela edo bazkidearen beste edozein egiaztapen-elementu iruzurrez lagatzea, instalazioko bazkideak ez direnei sarrera ahalbidetuz, edo Kirolklub Zerbitzuaren instalazioetara sarbidea ahalbidetuz beste bide batzuetatik.
- » Besteen ondasunak bidegabe lapurtu, ebatsi edo edonola eskuratzea Kirolklub Zerbitzuaren instalazioetan.
- » Izen-ematearen datuak faltsutzea Kirolklubeko bazkide gisa.

### **39. artikulua - Hutsegite larriak**

Honako hauek hartuko dira hutsegite larritzat:

- » Kirolklub Zerbitzuko eta/edo udaleko enplegatuen oharrei jaramonik ez egitea, bazkideen edo beste pertsona batzuen osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten ekintzak eginez.
- » Kirolklub Zerbitzuak kudeatutako instalazioen beste erabiltzaile batzuei nahita kalte nabaria eragitea.
- » "Kirolklub Zerbitzuaren instalazioen Erabilera Arauak" idatz-zatian ezarritako oinarritzko arauak ez betetzea.
- » Bazkide-txartela edo Kirolkluben beste egiaztapen-elementu bat behin eta berriz ez eramatea.
- » Kirolklub Zerbitzuan kudeatutako instalazioak behin eta berriz gaizki erabiltzea.
- » Kirolklub Zerbitzuan kudeatutako instalazioen garbiketa eta higiene egoki bat mantentzearen aurkako ekintzak.

#### **40. artikulua - Zigor-prozedura**

Zigor bat zehazteko prozedura honako hau izango da:

1. Kirol-instalazio bakoitzean zerbitzuaren gaineko arduradun-kargua betetzen duen Kirolklubeko langileak irekiko du espedientea Kirolklub Zerbitzuaren Zuzendaritzari zuzendutako txosten bat idatziz, ustez zigortzekoa den jarrerari buruz, eta gertakarien inguruko zirkunstantziei buruz.
2. Kirolklubeko Zuzendaritzak zigor-proposamenari buruzko txostena idatziko dio Udal Zerbitzu arduradunari, zigortzeko eskumena duen organoari jakinarazi diezaion, eta idazki bidez jakinaraziko dio hutsegitea ustez egin zuen pertsonari, egutegiko 15 eguneko epean alegazioak aurkez ditzan.
3. Epea amaitzen denean, Vitoria-Gasteizko Udalaren Gizarte Etxeen eta Kirol Instalazioen Araubide Orokorraren "Zigor Prozedurari" buruzko 41. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

#### **41. artikulua - Txartelak aldi baterako kentzea**

Zerbitzuen txartel espezifikoak aurkeztean, zentroko langileek uste badute bazkide edo inskribatu izaera arrazoi batengatik eten egin dela, edo aurkeztutako agiriak arazorik baldin badu, une horretan sartzeko baimena emango zaio, baina txartela eman beharko du, eta zentroaren esku geratuko da sartzea eragozten dion arrazoa ebazten den arte.



### **Kirolklub Gamarra**

Barratxi, 39 A | 01013 Vitoria-Gasteiz  
945 204 006  
repcion-gam@urbaser.com

### **Kirolklub Mendizorrotza**

José Luis Compañón, 2 | 01007 Vitoria-Gasteiz  
945 150 836  
repcion-mend@urbaser.com

[www.kirolklub.com](http://www.kirolklub.com)

[www.facebook.com/kirolklub](https://www.facebook.com/kirolklub)